



ORDENANTZA 18. ZK

AGURAIINGO UDALERRIA ARABAKO LURRALDEA

**HAURTZAINDEGI ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

I. HELBURUA

Tasa honen gaia ordenantza honen tarifan adierazten diren zerbitzuetako edozein ematea da, horrek tasa ordaintzeko obligazioa sortzen baitu.

II. ZERGA GAIA

Tasapeko egitatea subjektu pasibo bati modu partikularrean dagokion, eragiten dion edo onura egiten dion udalaren haur eskolaren zerbitzua egitez ematea da.

III. SUBJEKTU PASIBOA

Zerbitzua ematea eskatzen duen pertsona izango da ordainarazpen honen subjektu pasiboa.

IV. TARIFAK ETA KUDEAKETA

1.- Zerbitzua:

Zerbitzua 0 eta 3 urte bitarteko adina duten haurrei ematen zaie, irailtik uztaiera, bi hilabete horiek barne, 8:00etatik 16:30era arte, astelehenetik ostiralera. Hala ere, erabiltzaileek proposatutako beharrianetara moldatuko litzateke ordutegia.

Jantoki zerbitzua erabiltzen duten haurrentzako janaria, norbere familiak eramango du etxetik.

2.- Irisgarritasunaren baldintzak:

Zerbitzuaz baliatzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Eskabidea aurkeztu beharko da, eta matrikulaziorako arauetan ezarritako jardunbideari jarraitu.

b) Zerbitzua eskatzen duen umea Aguraingo udalerrian erroldaturik egon beharko da. Erroldatutako en eskabideei erantzun eta gero postu hutsik gelditzekotan, bertan erroldaturik ez dauden hurrek zerbitzua erabil lezakete.



c) Aurreko ikasturteetan zerbitzua emateak sortutako kuoten ordainketan egunera egotea.

d) Matrikula saria ordaintzea.

3.- Eskabideen balorazioa:

Eskabide kopurua postu kopurua baino handiagoa bada, jarraian azaltzen den hurrenkerari jarraituko zaio onarpenerako:

1/0-2 urte bitarteko haurrak.

A.- Udalerrian erroldatutako haurrak:

A.1. Zaintza edo tutoretza pertsona bati esleiturik egon eta horrek lan egin edo ikastegi publiko edo pribatu baimendu batean ikasten badu.

A.2. Aitak eta amak edo tutoreak lanaldi osoan lan egin edo ikasten badute.

A.3. Aitak eta amak edo tutoreak lan egin edo ikasten badute, haietako batek lanaldi partzialean.

A.4. Pertsona bietako batek lan egin edo ikasten badu. Libre gelditzen diren postuak Aguraingo udalerrian erroldatutakoaren artean zozketatuko dira.

B.- Haurrak udalerrian erroldaturik ez badaude baina beren guraso edo tutoreek, edo horietako batek, Aguraingo udalerrian lan harremana badaukate. Egoera honetan haur bat baino gehiago izanez gero, A idatz-zatiako baremoa aplikatuko da, eta gainerako lanpostuak zozketaz emango dira.

C.- Aguraingo udalerrian erroldatuta ez dauden haurrak. Egoera honetan haur bat baino gehiago izanez gero, A idatz-zatiko baremoa aplikatuko da, eta gainerako lanpostuak zozketaz emango dira.

2/2-3 urte bitarteko haurrak.

4.- Matrikulaziorako jardunbidea eta epeak:

Matrikulazio prozesuak honako arau hauei jarraituko die:

1.- Matrikulatzea: Matrikulatzeko epea otsailean izango da urtero. Interesatuta daudenek udal haurtzaindegiko lokaletan jaso eta aurkeztu ahal izango dituzte inprimakiak. Matrikulatzean, matrikula guztia ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu



beharko da; ordaindu, berriz, Vital Kutxako 2097 0234 60 0015169005 kontu zenbakian ordainduko da, eta ondoko hauek adierazi beharko dira: izen-abizenak.

2. Behin-behineko zerrendak: Behin udalak eskaerak aurkeztu eta gero, jendaurrean jarriko dira hartzaindegian.

3. Alegazioak egiteko epea: martxoan, urtero.

4. Behin betiko zerrenda: jendaurrean jarriko da hartzaindegian.

5.- Agiriak aurkeztea: Matrikulazioa eginda, gurasoek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Bi argazki.
- Matrikula ordaindu izanaren froga-agiria.
- Haurren osasun kartillako txerto egutegiaren fotokopia.

5.- Zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioak:

Ordenantza honen eranskinean zehazten diren tarifak ordaindu beharko dituzte gurasoek. Hileroko kuoten ordainketa guztiak banku helbideraketaren bidez egingo dira.

Matrikula egin eta gero zerbitzuari uko egiten bazaio, ez da matrikularen dirua itzuliko.

Bi hilabetetako kuotak ordaindu gabe utziz gero, besterik gabe haurrari baja emango zaio haur eskolan. Edozein kasutan ere, udalak interesatuari entzunaldia emango dio, baja gauzatu baino lehenago.

Hileroko kuoten ordainketa dagokien hilabetea amaituta egingo da, hurrengo hilabeteko lehenengo hamabostaldian.

Matrikulazioa irailaren 30a baino geroago egiten baldin bada, horren zenbatekoa lehenengo hileko kuotarekin batera kargatuko da. Urtarriletik aurrera, matrikulazioaren zenbatekoa %75 izango da.

Ordenantza honen Eranskinean agertzen diren tarifak hilabete osoari dagozkiola ulertu behar da. Hileroko kuotak, umea haur eskolan sartzen den garaia eta bertan irauten duen denbora gorabehera, izaera orokorrez ezarritakoak izango dira, inolako hainbanaketarik gabe.

6.- Moldatzeko denboraldia:



Umea haur eskolara lehenengo aldiz joaten bada, adierazi diren ordutegiak ez dira aplikatuko irailan. Hilabete hori haurra moldatzeko prozesurako erabiliko da eta horretarako, gurasoek ahal baldin badute, haurtzaindegiak familia bakoitzarentzako banakako ordutegiak ezarriko ditu. Ordutegi horiek, pixkanaka pixkanaka luzatuz joango dira, eskolako ordutegi normalera iritsi arte. Moldatzeko denboraldiko ordutegia hezitzaileek eskuratuko diote gurasoei. Lehenago, haiek gurasoekin harremanetan jarriko dira, moldatzeko prozesuaren garapena azaltzeko.

Moldatzeko denboraldi horretan, ikastegiak senide edo zaintzaileren bat haur eskolan umearekin egon dadila eskatzen du, familiako bizitzatik eskolako bizitzarako aldaketa erraztearren. Pausoz pauso haurraren egonaldiak luzatuz eta senidearen presentzia gutxituz joango dira, eskolako ordutegi normalera iristeko.

7. Bajak:

Ikasturtea hasita, matrikulatutako ume bat zazpi eguneko epearen barruan haur eskolara joaten ez bada, eskola familiarekin harremanetan jarriko da. Bidezko arrazoirik izan ezean, umea hiru eguneko epean eskolara ez joateak berari behin betiko baja ematea ekarriko du.

Ikasturtean zehar gertatzen diren bajak haur eskolaren itxaron zerrendak kontuan hartuz beteko dira. Zerrenda horiek gertatzeko, lehenengo eta behin, epearen barruan aurkeztuta posturik lortu ez zuten eskabideak sartuko dira eta, jarraian, gainerako eskabideak, erregistro dataren hurrenkeraren arabera.

Haur eskolako baja eskatzeko, udalari idazki bat bidali beharko zaio, guraso edo tutoreek izenpetua. Bajak jakinarazpenaren hurrengo hilabetetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bidezko arrazoirik daukaten ausentziak ezin izango dira bi hilabete baino luzeagoak izan. Beraz, denbora hori igarota, udalak behin betiko baja eman ahal izango du, kasuan kasuko egoera kontuan hartuta.

8.- Eskolako egutegia:

Eskolan bertan ikusgai ipiniko da eskolako egutegia. Bertan, opor eta eskola egunak eta aldiak azalduko dira.

9.- Jantoki zerbitzua:



Beren seme-alabek eskolan bazkaltzea nahi duten gurasoek eskolako langileei eskuratu beharko diote janaria.

10.- Salbuespenak, murrizketak eta hobariak:

Ikasturte berean familia unitateko bi kide edo gehiago joaten badira udal haurtzaindegira, bigarren erabiltzaileari eta hurrengoei aplikatu beharreko tarifa tauletan ezarritakoen % 50a izango da.

V. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eranskinarekin batera eranskinean agertzen den egunean onartu zen behin betiko eta 2008ko irailaren 1ean sartu zen indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

HAURTZAINDEGI ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Eranskina

2008/09 Ikasturterako tarifak:

A.- MATRIKULA: 115,00 €haurra

B.- HILEKO TARIFAK:

Etortzeagatik: 125,00 €haurra

Shaskengatik: 195,00 €haurra

C.- JANTOKIKO ZERBITZUAGATIKO TARIFAK: 10,00 €haurra/hila.

Haurtzaindegi zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza, eranskin honetan jasotako tarifak haren zati direla, 2008ko maiatzaren 28an onartu zen behin betiko.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA